*1.987.ko Azaro eta Abendurako*

# KULTUR EKITALDIEN EGUTEGIA

## LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA

**Azaroak 20, Ostirala**

ARRATSALDEKO 8etan.- Santa Zeziliaren kontzertua Santo Kriston, Musika Akademiako haurren eskutik. Bukaeran diplomen banaketa.

**Azaroak 21, Larunbata**

EGUERDIKO ORDU 1ean.- Musika Akademiako txistularien emanaldia.

**Azaroak 25, Asteazkena**

Herri Eskolak antolaturiko hitzaldia. Gaia: "El bilingüismo en la educación".

**Abenduak 3, Osteguna**

Hitzaldia, Askagintzak drogaren aurka antolaturiko kanpainaren barruan. Gaia: "PREVENCION". Hizlariak: Txus Konjil eta Altzako tailerrakoak. Lekua: Joanes Etxeberri eskolan, arratsaldeko 7etan.

**Abenduak 4, Ostirala**

GAUEKO 10,30etan.- Andreone Kultur Etxean, Lezoko Zine-Klub taldearen aurkezpena filme hunkigarri batekin.

**Abenduak 5, Larunbata**

Askagintzak antolaturiko kantaldia. Bertan parte hartuko dute: AZALA, JOTAKIE, MAK, XANGOT eta ESTROPAJO taldeek.

**Abenduak 6, Igandea**

Drogaren aurkako kanpainaren barruan sekulako erakusketa Askagintzaren eskutik.

**Abenduak 9, Asteazkena**

Herri Eskolak antolaturiko bigarren hitzaldia. Gaia: "Alternativa al consumismo".

**Abenduak 19, Larunbata**

Sekulako Idi Dema Ixkulinen eskutik. Lau idi parek hartuko dute parte, bi goizez eta beste bi arratsaldez. Sariak 45.000, 40.000, 35.000 eta 30.000 pezetetakoak izango direlarik. Eguerdian Herri Bazkaria.

Egun berean Txerrimuñok antolaturiko Kultur Eguna. Goiz goizean diana, eta egunean zehar antzerki saioa, bazkaria, txotxongiloa, triki-trixa punk eta amaitzeko rock kontzertua.

**Abenduak 21, Astelehena**

Santo Tomas Feria AEK-k antolaturik.

**Abenduak 23, Asteazkena**

ARRATSALDEKO 8etan.- Santo Kriston kontzertua Akademiako ikasleek emana.

**Abenduak 24, Osteguna**

Arratsaldean Olentzaro aterako da gure kaleetatik barrena, herriko zenbait elkarteen eskutik.

Ilunabarrean berriro azalduko da gure kaleetan Amnistiaren Aldeko Gestorekoekin batera.

**AbenduaK 27, Igandea**

Haurrentzako Ekaitzek antolaturiko Gabonetako Jaialdia. (arratsaldean).

Igande hontatik aurrera Allerruk antolatutako futbol-sala, 10-15 urtetako mutikoentzat.

Egun berean antzerki saioa Herri Eskolak eraturik.

**AbenduaK 31, Osteguna**

Txinparta Abesbatza kalez kale ibiliko da kopla zaharrak kantatuz.

Amnistiaren Aldeko Gestorakoak baserriz baserri joango dira gure ohizko koplak abestuz eta denbora berean gure presoak eta errefuxiatuak bereiziki gogoratuz.

Egun berean eta Arratsaldeko 5etan, Allerruk antolaturiko San Silbestre lasterketa.

*LEZOKO UDALAK HONEN BITARTEZ, JAI ON, JATOR ETA ZORIONTSUAK OPA NAHI DIZKIE LEZOAR GUZTIEI.*

Grdf. LEZO, S. L. - Lezo